Eresbil propone una mesa redonda con la presencia de cuatro mujeres profesionales de la música que debatirán la problemática histórica y actual de las compositoras vascas. La mesa redonda se intercalará con la interpretación al piano de piezas de salón escritas por compositoras como Mazarredo, la Condesa de Peñaflorida, Julie Adrienne Carricaburu o Emiliana de Zubeldia.

🔊 CASTELLANO

📍 Kutxa Kultur – Tabakalera, 4. solairua, Donostia
Kutxa Kultur – Tabakalera, 4º planta, Donostia

📅 Urriak 26, 19:00
26 de octubre 19:00

👤 Eresbil - Euskal Musikaren Artxiboa
Eresbil - Archivo Vasco de la Música

📞 943 000 868
bulegoa@eresbil.com

🗨️ Izen-ematea aurrez
Inscripción previa





MoMoWo · 100 WORKS IN 100 YEARS

EUROPEAN WOMEN IN ARCHITECTURE AND DESIGN · 1918-2018

DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

URR 31 | AZA 15
OCT | NOV
AST - OST / MIE - JUE

MOMOWO (EMAKUMEAK MUGIMENDU MODERNOKO ARKITEKTURAN)

ERAKUSKETA

MoMoWo europar proiektuaren esparruan garatutako erakusketa, emakumezko arkitektoek XX. mendearen hasierako arkitekturaren eta hiriarren garapenean izandako papera bistaratzeko egina. Historiografia ofizialak ahantziriko papera baita. Erakusketa hori urte horietan zehar gure herrialdean lan egin zuten emakumezko euskal arkitektoen lanarekin osatuko da. Helburua: emakumeen eta arkitektura ondare modernoaren arteko harremana erakustea eta balioestea.

MOMOWO (MUJERES EN LA ARQUITECTURA DE MOVIMIENTO MODERNO)

EXPOSICIÓN

Exposición desarrollada en el marco del proyecto europeo MoMoWo, para visibilizar el papel de las arquitectas en el desarrollo de la arquitectura y de la ciudad a principios del siglo XX. Un papel olvidado por la historiografía oficial. Esta exposición será completada con el trabajo de arquitectas vascas que trabajaron en esos años en nuestro país. Objetivo: mostrar y poner en valor la relación entre las mujeres y el patrimonio arquitectónico moderno.

🗣️ EUSKARA + CASTELLANO

📍 Espacio Basque Living de Tabakalera

📅 Urriak 31, azaroak 15 bitarte, 9:00-21:00
31 de octubre al 15 de noviembre, 9:00-21:00

👤 Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro en Gipuzkoa (COAVN Gipuzkoa)

📞 943 320 194
kultura@coavnss.org

📄 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa

COAVN
GIPUZKOA



DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

05 | 30

AST-OST / LUN-VIE

EMAKUME INPRIMATZAILEAK GIPUZKOAN

ERAKUSKETA

Inprimategiak familiarako negozio izan dira tradizioz. Zentzu honetan, familiarako alargun eta alabek negozio horien jarraitasunean izan duten garrantzia ezagutarazi nahi dugu. Horretarako, Koldo Mitxelena liburutegian erakusketa bat antolatu nahi dugu Gipuzkoara inprenta iritsi zenetik gaur arte inprimategi lanetan aritu diren emakumeen berri emateko.


MUJERES IMPRESORAS EN GIPUZKOA

EXPOSICIÓN

Inprimategiak familiarako negozio izan dira tradizioz. Zentzu honetan, familiarako alargun eta alabek negozio horien jarraitasunean izan duten garrantzia ezagutarazi nahi dugu. Horretarako, Koldo Mitxelena liburutegian erakusketa bat antolatu nahi dugu Gipuzkoara inprenta iritsi zenetik gaur arte inprimategi lanetan aritu diren emakumeen berri emateko.

 EUSKARA + CASTELLANO

 Koldo Mitxelena Liburutegia

 Azaroak 5-30 bitarte
Asteleheneetik ostiralera 8:30-20:30
Larunbata 8:30-14:00

Del 5 al 30 de noviembre.
Lunes a viernes 8:30-20:30
Larunbata 8:30-14:00

 Koldo Mitxelena Liburutegia

 943 112 767
nlopezdearcaute@gipuzkoa.eus

 Helduak eta haurrak
Mayores y niños





DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

09
OST / VIE

EMAKUMEAK ETA ARKITEKTURA. ESPARRU HISTORIKOA. BAUHAUS

HITZALDIA

Bauhaus eskola mitikoa izan zen, eta inspirazio iturria izaten segitzen du diseinu industrialerako, arkitekturarako... Horren historia erakusten duten irudi gehienetan zenbait emakume ikus daitezke. Ez zituzten haien izenak aipatzen, eta horrenbestez laguntzaile edo musa gisa interpretatzen da haien presentzia. Arkitekturan doktore Hosenia Hervásen ikerlanak 'beste' Bauhaus bat erakusten digu, kalitate maila altuko ibilbidea egindako emakumezko profesional askoren izenak biltzen dituen bat.

MUJERES Y ARQUITECTURA. EL MARCO HISTÓRICO. LA BAUHAUS

CONFERENCIA

La Bauhaus fue una Escuela mítica y sigue siendo una fuente de inspiración para el diseño industrial, la arquitectura... En la mayoría de las imágenes que atestiguan su historia puede verse a diversas mujeres. No se citaban sus nombres, interpretándose su presencia a modo de acompañantes o musas. La investigación de la doctora en Arquitectura Josenia Hervás nos descubre 'otra' Bauhaus, en la que cuentan muchos nombres femeninos de profesionales con trayectorias de alta calidad.

🗣️ CASTELLANO

📍 Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro en Gipuzkoa

📅 Azaroak 6 eta 9, 13:00-15:00
6 y 9 de noviembre, de 13:00 a 15:00

👥 Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro en Gipuzkoa. Dpto. Kultura | Gizartea

📞 943 320 194
kultura@coavnss.org

🗨️ Entrada gratuita

COAVN
GIPUZKOA



EIBAR

IRA 15 | AZA 16
SEP | NOV
LAR-OST / SAB-VIE

FUTBOLEKO EMAKUME EZEZAGUNAK

BISITA KOMENTATUA

Ipuruako estadiorako (1947) ikustaldi gidatua. Horretan Eibar taldearen eta Eibarren historiaren gaineko errepaso egingo da, historia horretan arrasto sakona laga duten emakume batzuen ikuspegitik. Emakumezko presidentea duten bi taldeetako bat gara, erabakiak hartzeko postuetan sexu-berdintasuna dugu ia-ia, gure futbol kluba da zuzendari orokor emakumezkoa duen bakarra, emakumezko lehen talde garrantzitsua dugu, eta baita helburu komuna ere: benetako erreferentzia izatea, berdintasunari dagokionez, egun zeharo maskulinoa den futbolaren munduan.

LAS MUJERES DESCONOCIDAS DEL FÚTBOL

VISITA COMENTADA


Visita guiada al Estadio de Ipurua (1947), haciendo un repaso a la historia del Eibar y de Eibar desde el punto de vista de algunas mujeres que la han marcado profundamente. Somos uno de los dos únicos equipos con Presidenta, prácticamente igualdad de sexos en puestos de toma de decisiones, única Directora General de un Club de Fútbol, un importante Primer Equipo Femenino y un objetivo común: ser una auténtica referencia en la igualdad en un mundo tan masculino como es el fútbol.


 EUSKARA + CASTELLANO

 Ipurua F. Zelaia
Estadio de Ipurua

 Irailak 15 - azaroak 16 bitarte
Del 15 de septiembre al 16 de noviembre

 SD Eibar Fundazioa

 688 852 732
tour@sdeibar.com

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa
6 bisitarienzako gutxienez bisita.
Oferta de al menos 6 visitas





EIBAR

URR
OCT 25 | AZA
NOV 18
OST-IGA / JUE-DOM

EIBARKO EMAKUMEEN AZTARNAK

ERAKUSKETA


Erakusketa honek Eibarko emakumeek denboran zehar gure hiriaren eta gure ondarearen garapenean egin duten ekarpena eta izan duten papera aurkeztuko du, Eibarko bederatzi artistaren begiradaren bitartez.

LAS HUELLAS DE LAS MUJERES EIBARRESAS

EXPOSICIÓN


Esta exposición presentará la contribución de las mujeres eibarresas a través de las épocas y su papel en el desarrollo de nuestra ciudad y su patrimonio mediante la mirada de nueve artistas eibarresas.


 EUSKARA + CASTELLANO

 Portaleko erakusketa aretoa
Salón de exposiciones del portal

 Urriaren 25etik azaroaren 18ra
25 de octubre al 18 de noviembre

 Armagintzaren Museoa-Eibarko Udala
Ayuntamiento de Eibar, Museo
de la industria arnera

 943 320 194
museoa@eibar.eus

 Ohizko ordutegia
Horario regular





ELGOIBAR

15 | 30

AST-IGA / LUN-DOM

EMEEK EMANA ERAKUSKETA

ERAKUSKETA

Aurkezten dugun erakusketa hau protagonisten argazkietan jasota dauden kontakizunen bilduma da. 66 argazki hauetan, 1936tik aurrera ematen den testuinguru historikoan emakumeek izan zuten zeregin aktiboa jasotzen da. Bertan azaltzen dira bataila eremuaren, erbestearen, torturaren, espetxearen, errepresioaren eta bizi iraupenerako estrategien inguruko narrazio eta bizipenak, emakumezkoaren ikuspegitik antolatutako egitura sozialerako planteamendu, borroka eta aktibismoaz batera.

EXPOSICIÓN EMEEK EMANA


EXPOSICIÓN

La exposición que presentamos es una recopilación de relatos recogidos en las fotografías de las protagonistas. En estas 66 fotografías se recoge la actividad desarrollada por las mujeres en el contexto histórico a partir de 1936. Se exponen narraciones y vivencias relativas al campo de batalla, al exilio, a la tortura, la cárcel, la represión y las estrategias de supervivencia, junto con planteamientos, luchas y activismo en torno a la estructura social organizada desde el punto de vista de la mujer.

 EUSKARA + CASTELLANO

 ELGOIBAR (Kultur Etxean)

 Irailaren 15 - 30 bitarte
Del 15 al 30 de septiembre

 Intxorta 1937 kultur elkartea eta
Mauro Saravia

 699669205
juliamondra@gmail.com

 Irekia eta doan
Abierto y gratis



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euzko Legebiltzari
de Gipuzkoa





ELGOIBAR

20
LAR / SAB

ESTARTA Y ECENARRO: SIGMA JOSTEKO MAKINAK.

ERAKUSKETA

1937ko urtean Estarta y Ecnarro-ko kudeatzaileek erabaki zuten makina-erremintaren fabrikazioaren osgarri josteko eta bordatzeko makinak egiten hastea. Elgoibarren, emakumea modu orokor batean lan munduan sartzea ekarri zuen horrek.

ESTARTA Y ECENARRO: MÁQUINAS DE COSER SIGMA.

EXPOSICIÓN

En el año 1937 los gestores de Estarta y Ecnarro decidieron complementar la fabricación de máquinas - herramienta con la de la fabricación de máquinas de coser y bordar. En Elgoibar esto supuso la incorporación de la mujer en el mundo laboral de forma generalizada.

🔊 EUSKARA + CASTELLANO

📍 Museo de máquina - herramienta, Elgoibar

📅 Urriaren 20, 11:00
20 de octubre, 11:00

👤 Museo de máquina - herramienta, Elgoibar

📞 943748456
museoa@museoa.eus

🗨️ Izen-ematea aurrez
Inscripción previa





ERRETERIA

IRA SEP 27 | URR OCT 04
OST-IGA /JUE-DOM

EMAKUMEA MODAREN TIRANIAREN MENPE

BISITA KOMENTATUA

Jantzien bilakaera” aretoan dagoen erakusketa aprobetxatuz armazoiek, kortseak eta gainerakoek XVIII-XX mende artean emakumeen osasunean eta eguneroko bizitzan eragiten zituzten arazoan inguruan hitz egingo dugu.

LA MUJER BAJO LA TIRANÍA DE LA MODA

VISITA COMENTADA

Valiéndonos de la exposición de la sala “Jantzien bilakera”, hablaremos sobre los problemas de salud y los problemas cotidianos que provocaban a las mujeres los armazones, corsés y demás elementos entre los siglos XVIII y XX.

🎧 EUSKARA + CASTELLANO

📍 Jantziaren zentroa

📅 Irailak 27, 19.00 tan euskaraz eta urriak 4 19.00 tan gazteleraz

👤 Jantziaren zentroa

📞 600 081 906
jantziarenzentroa@erreteria.eus

🗨️ Izen-ematea aurrez
Inscripción previa



ERRETERIA

06 | 07

LAR-IGA / SAB-DOM

EMAKUMEAK MANCHESTER TXIKIAN. PISTA-JOKOA.

BESTE BAT

5-12 urteko umeak dituzten familiei zuzendutako ekimena. Era entretenigarrian Erreterian izan ziren industria nagusiak ezagutuko dituzte. Eta, bereziki, herriko industrializazioan emakumeek izan zuten rola landuko da (lan-baldintzak, burutzen zituzten lan ezberdinak, soldaten arteko desberdintasunak e.a.).

MUJERES EN EL PEQUEÑO MANCHESTER. JUEGO DE PISTAS.

OTRO


Iniciativa dirigida a las familias con niñas/niños entre 5 y 12 años. Conocerán, de un modo ameno, las principales industrias existentes en su tiempo en Erreteria. Y, especialmente, se trabajará el rol que desempeñaron las mujeres en la industrialización del municipio (condiciones laborales, diferentes trabajos realizados por ellas, diferencias salariales, etc.).


 EUSKARA

 Zumardiko kioskoa
Quiosco de Zumardia

 Urriak 6-7, 10.30-11:30
6-7 de octubre, 10:30-11:30

 Erreteriarako udala
Ayuntamiento de Erreteria

 943 49 45 21
turismoa@oarsoaldea.eus

 Izen-ematea aurrez
Leku-kopuru mugatua
Inscripción previa
Plazas limitadas





ERRETERIA

06 | 07

AST-AST / MAR-MIE

EMAKUMEAK MANCHESTER TXIKIAN

BISITA KOMENTATUA

Bisita honetan herriarentzat industrializazioak suposatu zuen aldaketa ezagutzera emango da, XIX eta XX. mendeetan jasandako eraldaketaz jabetuz eta emakumeek izan zuten rola nabarmenduz.

MUJERES EN EL PEQUEÑO MANCHESTER

VISITA COMENTADA


En esta visita se dará a conocer lo que ha supuesto la industrialización para el municipio, mostrando la transformación sufrida durante los siglos XIX y XX y subrayando el rol desempeñado por las mujeres.


 EUSKARA + CASTELLANO

 Zumardiko kioskoa
Quiosco de Zumardia

 Urriak 6-7, 12:00-14:00
6-7 de octubre, 12:00-14:00

 Erreterriako udala
Ayuntamiento de Erreterria

 943 49 45 21
turismoa@oarsoldea.eus

 Iraupena: 2 ordu
Izen-ematea aurrez
Leku-kopuru mugatua
Duración: 2 horas
Inscripción previa
Plazas limitadas





ERRETERIA

10|11
AST-OST / MIE-JUE

EMAKUMEEN EKARPENAK KALERA

BISITA KOMENTATUA

Bisita gidatu honen helburua da gizarteko arlo desberdinetan emakumeek Erreteriarri egindako ekarpena ikustaraztea. Mariasun Landa sarien bidez berreskuratutako hainbat emakumeren bizitza-istorioetatik abiatuta herriaren beste kronika bat erakutsiko da.

MOSTRANDO LAS APORTACIONES DE LAS MUJERES

VISITA COMENTADA

El objetivo de esta visita guiada es mostrar la aportación realizada en diversos ámbitos sociales por la mujer a Erreteria. Se mostrará otra crónica de la localidad, partiendo de las vidas-historias de muchas mujeres, recuperadas mediante los premios Mariasun Landa.

 EUSKARA + GAZTELANIA

 Udaletxeko arkupeak
Arcos del ayuntamiento

 Azaroaren 10, 10:30 (Euskaraz) ; 12:30 (Gaztelera)
Azaroak 11, 11:30 (Haurrentzat euskaraz)
10 de noviembre, 10:30 (euskeraz) 12:30 (castellano)
11 de noviembre, 11:30 (para niños en euskera)

 Erreteriarriko udala
Ayuntamiento de Erreteria

 943 49 45 21
turismoa@oarsoaldea.eus

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa





ESKORIATZA

28
IGA / DOM

LIHOGINTZA: EMAKUMEEN ASKATASUNERAKO BIDEA

BISITA KOMENTATUA

Linua inguratzen duen mundua ezagutzeko aukera Ibarraundi Museoa egingo den bisita gidatuan. Iragana gogora ekarriko digu ibilbide honek eta garai hartan emakumeen askatasunean izandako eragin azalduko da.

TRABAJANDO EL LINO: LAS MUJERES CAMINO DE SU LIBERTAD


VISITA COMENTADA


Oportunidad de conocer el mundo en torno al lino, en la visita guiada que se realizará en el Museo Ibarraundi. Este recorrido nos retrotraerá al pasado, mostrándonos la influencia que ejerció este mundo en la libertad de las mujeres.


 EUSKARA + CASTELLANO

 Ibarraundi Museoa
Museo Ibarraundi

 Urriaren 28, 11:30
28 de octubre, 11:30

 Ibarraundi Museoa (Eskoriatzako Udala)
Museo Ibarraundi Ayuntamiento de Escoriaza

 943 71 54 53
garapen@eskoriatza.eus

 Leku-kopuru mugatua
eta izen-ematea aurrez
Inscripción previa
Plazas limitadas





EZKIO

11
IGA / DOM

“KARELIA” ARTISAU EHUNDURA

TAILERRA

Ikastaro praktikoa honetan, Tytti Thusbergek “Karelia” bere azken bilduman erabilitako teknika erakutsiko du. Material berri birziklatu batez egina dago erabat, arrantza-sareen hondakinak, pet post-kontsumo eta Latxa ardiak ilea elkartuz, jatorrian hondakinak izandako lehengaiei erabilpen berria eskainiz. Jantziarako zein osagarriarako erabili daitezkeen “Faux fur” – “larru artifizial” antzeko ehundura sortuko dugu puntadaz puntada. Tailerraren ondoren, 14:00etan bazkaria izango da.

TEJIDOS ARTESANOS “KARELIA”

TALLER

En este curso práctico Tytti Thusberg “Karelia” nos mostrará la técnica utilizada en su última colección. Está realizada totalmente con material reciclado, uniendo restos de redes de pesca, pet post-consumo y lana de oveja latxa, dando así una nueva utilidad a materias primas ya consideradas desecho. Puntada a puntada, crearemos una textura similar al “Faux fur” – “cuero artificial” utilizado para ropa y complementos. Después del taller, a las 14:00 horas habrá una comida.

🗣️ EUSKARA

📍 Igartubeiti Baseri Museoa
Caserío Museo Igartubeiti

📅 Azaroaren 11, 11:00
11 de noviembre, 11:00

👤 Igartubeiti Baseri Museoa
Caserío Museo Igartubeiti

📞 943 72 29 78
igartubeiti@gipuzkoa.eus

📄 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa

🍽️ Bazkaria helduak 10€ haurrak 5€
helduei zuzendua.
Comida adultos 10€ niños 5€,
dirigido a adultos.





EZKIO

11
IGA / DOM

“ARTANTXURIKETAN” IKUSKIZUNA IGARTUBEITI BASERRIAN

IKUSKIZUNA

Landa munduko euskarazko kantu eta kontakizun saioa, Ansa Ahizpak & Ama-ren eskutik. Horixe da Maria Jesus Zugarramurdik eta bere hiru alabek, Arantxa, Ainhoa eta Mainerrek osatzen duten taldearen izen artistikoa.

Ikuskizun horretan, baserriko arratsalde bat antzetzten dute; familia eta auzokoak elkartu eta solasaldi bizia sortzen dute elkarrekin, artoa aletzen duten bitartean.


ESPECTÁCULO “ARTANTXURIKETAN” EN EL LAGAR DEL CASERÍO IGARTUBEITI

ESPECTÁCULO


Sesión de canciones y relatos en euskera transmitidos en el ámbito rural, de la mano de Ansa Ahizpak & Ama, nombre artístico con el que se conoce al grupo que conforman María Jesús Zugarramurdi y sus tres hijas, Arantxa, Ainhoa y Maider.


El espectáculo consiste en una representación de una tarde en el caserío, en la que la familia y los/as vecinos/as se reúnen y charlan animadamente mientras desgranar el maíz.


 EUSKARA

 Igartubeiti Baserri Museoa
Caserío Museo Igartubeiti

 Azaroaren 11, 16:30
11 de noviembre, 16:30

 Igartubeiti Baserri Museoa
Caserío Museo Igartubeiti

 943 72 29 78
igartubeiti@gipuzkoa.eus

 Leku-kopuru mugatua
Doako jarduera
Jende guztiarentzat
Plazas limitadas
Actividad gratuita
Para todos los públicos





GETARIA

16

OST / VIE

EMAKUMEA, MODA ETA ONDAREA

BISITA KOMENTATUA

Cristóbal Balenciaga Museoa “Moda eta Ondarea” erakusketara bisita egitea proposatzen du, XX. mendearen lehenengo erdialdean emakumearen idealak bizitako bilakaeraren eta ondare-sorkuntzan egindako ekarpenaren ikuspegitik abiatuta.

MUJER, MODA Y PATRIMONIO

VISITA COMENTADA

Cristóbal Balenciaga Museoa propone una visita a la exposición “Moda y Patrimonio” bajo la perspectiva de la evolución del ideal de la mujer en la primera mitad del siglo XX, y de su contribución en la generación del patrimonio.


 EUSKARA + GAZTELANIA

 Cristóbal Balenciaga Museoa
Museo Cristóbal Balenciaga

 Azaroak 16, 12:00 (euskara) 12:30 (gaztelania)
16 de noviembre 12:00 (euskera) 12:30 (castellano)

 Cristóbal Balenciaga Museoa
Museo Cristóbal Balenciaga

 943 00 88 40
info@cristobalbalenciagamuseoa.com

 Leku-kopuru mugatua. Beharrezkoa da izena ematea / Plazas limitadas. Inscripción necesaria

HONDARRIBIA

29
LAR / SAB

HONDARRIBIAN ARRASTOA LAGA DUTEN EMAKUMEAK

BISITA KOMENTATUA

Hirian arrastoa laga duten emakumeen historia deskubrituko dugun ikustaldi gidatua.

MUJERES QUE HAN DEJADO HUELLA EN HONDARRIBIA

VISITA COMENTADA


Visita guiada en la que descubriremos la historia de mujeres que han dejado huella en la ciudad.

 EUSKARA + GAZTELANIA

 Arma plaza informazio turistikoa eta kultural zentroa
Centro de información cultural y turística
Arma Plaza

 Irailak 29, 10:30 (euskara), 12:00 (gaztelania)
29 septiembre, 10:30 (euskera) 12:00 (castellano)

 Arma Plaza Fundazioa

 943 64 46 23 / 943 64 36 77
armaplaza@armaplaza.eus

 Leku-kopuru mugatua eta izen-ematea aurrez
Plazas limitadas y reserva previa





IRUN

 IRA 15 | AZA 16
 SEP | NOV
 LAR-OST / SAB-VIE

EMAKUMEAK NON, ONDAREA HAN

ERAKUSKETA


Gordailuko lehenengo solairuko biltegia nagusian, ikusgaitasun berezia duten tokietan, gai aldetik hamar multzo osatuta, iraganean eta orainaldian emakumeek protagonizatutako ondarea erakusgai, honako atal tematiko hauek jorratuta: artea (egile zein irudikapen), historia, arkeologia, etnografia. Goian aipatutako erakusketa ardatz hartuta, Gordailuan barrenako bisitaldi gidatuak, euskaraz eta gaztelaniaz publiko orokorrarentzat eta bereziki emakume-taldeentzat.

ESPACIO DE MUJER, ESPACIO DE PATRIMONIO

EXPOSICIÓN


En el depósito principal de la primera planta de Gordailu, en lugares especialmente visibles y completando diez grupos temáticos, mostramos un patrimonio pasado y actual cuyo protagonista es la mujer, y trabajamos diferentes secciones temáticas como son: el arte (como autora y como elemento representado), la historia, la arqueología y la etnografía. Visitas guiadas en euskara y castellano a través de Gordailu, tomando como eje la exposición arriba citada, dirigidas al público en general y especialmente a grupos de mujeres.

 EUSKARA + GAZTELANIA

 Gordailua, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa Gordailu, Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa

 Irailak 15 azaroaren 16 bitarte
15 de septiembre al 16 noviembre

 Gordailua, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa

 943 41 51 78
gordailua@gipuzkoa.eus

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa

|G|O|R|D|A|I|L|U|A|

Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa



IRUN

15 | 30

LAR-IGA / SAB-DOM

EMAKUMEAK BERE AHOTSA ANTZINATASUNEAN

ERAKUSKETA

“MULIERES, emakumeak Augusta Emeritan” aldi baterako erakusketaren testuinguruan, “Emakumeak bere ahotsa Antzinatasuren” instalazioa aurkeztuko da. Horretan erromatarren garaiko emakume eragin handikoen biografiak eta ahotsak erreskatatuko dira.

MUJERES CON VOZ PROPIA EN LA ANTIGÜEDAD

EXPOSICIÓN

En el contexto de la exposición temporal “MULIERES, mujeres en Augusta Emerita”, se presentará la instalación “Mujeres con voz propia en la Antigüedad”, que rescata biografías y voces de mujeres influyentes de época romana.

 EUSKARA + GAZTELANIA

 Oiasso museoa
Museo Oiasso

 Irailak 15-30 bitarte
15 -30 de septiembre

 Oiasso museoa
Museo Oiasso

 943 63 93 53
actividades.oiasso@irun.org

 izen-ematea aurrez gabe
sin reserva previa





IRUN

28

OST / VIE

EMAKUMEAREN HITZA

BISITA KOMENTATUA

“MULIERES, emakumeak Augusta Emeritan” erakusketan eta “Emakume ahotsak Antzinasunean” instalazioan zeharreko paseo antzetzua, emakumezko idazle eta pentsalari erromatarren pentsamendu eta narratibara hurbilduko gaituena.

PALABRAS DE MUJER

VISITA COMENTADA


Un paseo teatralizado por la exposición “MULIERES, mujeres en Augusta Emerita” y la instalación “Voces de mujeres en la Antigüedad” que nos acercará al pensamiento y a la narrativa de escritoras y pensadoras romanas.

 CASTELLANO

 Oiasso museoa
Museo Oiasso

 Irailak 28, 18:00
28 de septiembre, 18:00

 Oiasso museoa
Museo Oiasso

 943 63 93 53
actividades.oiasso@irun.org

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa



IRUN

16
OST / VIE

EMAKUMEAK NON, ONDAREA HAN

BISITA KOMENTATUA

Gordailua toki aproposa da emakumeek ondareari egin dioten ekarpena erakusteko, bai egile gisa, bai hartzaile gisa.

Proposamenak, aldi baterako erakusketa bat ardatz, emakumeek ondareari egindako ekarpena erakutsiko dute; hartara, biltegietan barrenako bisita komentatua egingo da, Gordailuko bilduma nagusienei erreparatuz: baserriko lana etao gibide tradizionalak, itsastarren jardunbideak, langile industrialak, bai eta artea ere, non emakumea objektu den, eta, uste baino gehiagotan, subjektu.

ESPACIO DE MUJER, ESPACIO DE PATRIMONIO


VISITA COMENTADA

Gordailu es un lugar adecuado para mostrar la aportación al patrimonio realizada por la mujer, ya como autora ya como receptora.


Tomando como eje la exposición temporal, la propuesta mostrará la aportación realizada por la mujer al patrimonio; así, se realizará una visita comentada a través de los diversos depósitos, reparando especialmente en las principales colecciones de Gordailu: el trabajo del caserío y los oficios tradicionales, actividades relacionadas con el mar, trabajadoras industriales. Y también en el arte, en el cual la mujer, además de objeto, se convierte en sujeto del mismo, en muchas más ocasiones de las que spondríamos.

 EUSKARA + GAZTELANIA

 Gordailua, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa Gordailu, Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa

 Azaroak 16, 11:00-12:00 / 17:00-18:00
16 de noviembre, 11:00-12:00 / 17:00-18:00

 Gordailua, Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa

 943 41 51 78
gordailua@gipuzkoa.eus

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa

|G|O|R|D|A|I|L|U|A|

Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa
Centro de Colecciones Patrimoniales de Gipuzkoa



LEINTZ GATZAGA

19

OST / VIE

GATZA, EMAKUMEEN ONDAREA

BISITA KOMENTATUA

Leintz gatzaga gatz ekoizpenari ertsiki lotua dagoen herria izan da 1331. urtetik. baina baita herri izaera jaso aurretik ere. Gaztelako erregeak herri izendapena eman zion urte horretan, justu herriak zuen iturburu gaziaren eskumena bereganatzeko.

Herri izendapenaren aurretik zein ondoren gatz ekoizpena eta gatzari loturiko garapen ekonomikoa emakumeen eskumenekoa zen.

LA SAL, PATRIMONIO DE MUJER

VISITA COMENTADA

Leintz Gatzaga es una localidad unida estrechamente a la producción de sal desde 1331, antes aún de su consideración como entidad. En dicho año, el rey de Castilla le concedió la carta puebla, precisamente con la intención de hacerse con la autoridad sobre la fuente salina del lugar.

La producción de sal y el desarrollo económico ligado a la misma, tanto antes de la carta puebla como con posterioridad, eran de competencia femenina.

🗣️ EUSKERA + CASTELLANO

📍 Gatz museoa
Museo de la sal

📅 Urriak 19, 12:00tan euskaraz eta
13:00tan gaztelerez / 19 de octubre
12:00 (euskara) 13:00 (castellano)

👤 Gatz Museoa / Leintz Gatzagako Udala
Museo de la sal, Ayuntamiento de Leintz
Gatzaga

📞 943 71 47 92
info@gatzmuseoa.com



⊕
LEINTZ
GATZAGAKO
GATZ MUSEOA
MUSEO SALINO
DE LEINTZ



MUTRIKU

06 | 21

LAR-IGA / SAB-DOM

ISABEL DE LOBIANO, BAHIKETA BATEN HISTORIA

BISITA KOMENTATUA


Mutrikuko Berriatua dorretxea, XVI. Mendeko gizarte-ordena aztoratu zuen maitasun historia baten lekuko izan zen. Isabel de Lobiano, Santa Katalina komentuan zegoela “zaindu, hazi eta hezteko”, Pedro Idiakezekin maitemindu zen eta, honek komentutik amarruz “bahitu” zuen, ihesaldi gorabeheratsu baten ostean, ezkutuan ezkondu zirelarik. Isabel de Lobianoren historia gertutik ezagutuko dugu, eta emakumeek arrantzari loturiko gizarte honetan izan zituzten aukerak eta funtzioak aztertuko ditugu.


ISABEL DE LOBIANO, HISTORIA DE UN RAPTO

VISITA COMENTADA


La casa-torre Berriatua de Mutriku, fue testigo de una historia de amor que alborotó el orden social guipuzcoano del siglo XVI. Isabel de Lobiano, encerrada en el convento de Santa Catalina para “custodia, crianza y enseñanza” se enamoró de Pedro de Idizquez, quien urdió un plan para “raptarla” del convento y casarse de manera clandestina. Conoceremos la historia de Isabel de Lobiano así como las diferentes oportunidades y funciones que ocuparon las mujeres en esta sociedad vinculada al mar.

 EUSKARA + CASTELLANO

 Mutrikuko Turismo Bulegoa
Oficina de Turismo de Mutriku

 Urriaren 6, 12:00 (Euskera)
21 de octubre, 12:00 (Castellano)

 Mutrikuko Udala
Ayuntamiento de Mutriku

 943 60 33 78
turismo@mutriku.net

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa





MUTRIKU

06 | 21

AST-IGA / LUN-DOM

EMAKUMEAK SATURRARANGO MEMORIAN

HITZALDIA

Gaur egun, Saturraran hondartza ederra Mutrikuko Flysch Beltzarengatik ezaguna da, baina historian zehar, beste hainbat gauzengatik bereizi izan da. XIX. Mendean, bainuetxe estimatua zen. Tamalez, bere historiako pasarterik ilunena emakumeei loturik egon da. 1938tik 1944ra emakumeentzako espetxe bilakatu zen eta milaka emakume preso izan ziren bertan, oso baldintza gogorretan.

Arantxa Ugarte eta Xabier Bazterretxeak, Saturrango historiaren ikuspegi zabala emango dute.

MUJERES EN LA MEMORIA DE SATURRARAN


CONFERENCIA

Hoy en día, la hermosa playa de Saturraran es conocida por el Flysch Beltza de Mutriku, pero a lo largo de la historia se ha señalado por muy diversas cuestiones. Durante el siglo XIX fue un afamado balneario. Por desgracia, el pasaje más trágico de su historia ha estado ligado a las mujeres. Desde 1938 hasta 1944 fue convertido en cárcel de mujeres, y miles de ellas estuvieron presas entre sus paredes, en condiciones durísimas.


Arantxa Ugarte y Xabier Bazterretxea nos ofrecerán una amplia perspectiva sobre la historia de Saturraran.

 EUSKARA

 Zabel Kultur Etxea-Hitzaldi aretoa
Casa de la cultura Zabel

 Urriak 25, 19:00
25 de octubre, 19:00

 Mutrikuko Udala
Ayuntamiento de Mutriku

 943 60 33 78
turismo@mutriku.net

 Aforoa bete arte
Hasta llenar aforo





OIARTZUN

20

LAR / SAB

EMAKUEEN EMARIA SOINUENEA-HERRI MUSIKAREN TXOKAON

BISITA KOMENTATUA

Tradizioz gizonen eremua izan da herri musika; hala ere, emakumeek beren emaria uzteko zirrikituak aurkitu dituzte. Gure museoan 400 soinu-tresnatik gora daude ikusgai; horietako batzuk emakumeek jo izan dituzte bereziki: panderoa, arrabita, tronpa, harpa... Hauekin zein bestelakoekin haien musika jarduna gauzatzeko izan dituzten oztopoak, ahozko transmisioan jokatu duten papera eta bestelakoak hizpide izango ditugu bisita gidatu honetan.

APORTACIÓN DE LA MUJER EN SOINUENEA – HERRI MUSIKAREN TXOKOA

VISITA COMENTADA


Tradicionalmente, la música popular ha sido un ámbito reservado a los hombres. Aun así, las mujeres han encontrado resquicios a través de los cuales poder hacer llegar su aportación. En nuestro museo disponemos en exposición de más de 400 instrumentos sonoros; algunos de ellos han sido tocados principalmente por mujeres: pandero, rabel, trompa, arpa... En esta visita guiada trataremos sobre las dificultades que han tenido a la hora de desarrollar su actividad musical con unos y otros instrumentos, junto con el papel que ha desarrollado la mujer en la transmisión oral, etc.

 EUSKARA

 Soinuenea Fundazioa
Fundación Soinuenea

 Urriak 20, 11:00
20 de octubre, 11:00

 Soinuenea Fundazioa
Fundación Soinuenea

 943 60 33 78
artxiboa@soinuenea.eus

 5€

 **SOINUENEA**
Herri Musikaren Txokoa



OÑATI

27
LAR / SAB

BAIMENDU GABEKO SEXUALITATEA: LEGERIA ETA JUSTIZIA GIPUZKOAN (XVI- XVIII MENDEAK)

HITZALDIA

Informazio iturri gisa erabiliz bai legeria historikoa bai lurraldean gordetzen den dokumentazioa, delitu horien gainean garai hartan zegoen iritzia aztertuko dugu, baita biktimen eta erasotzaileen profilak eta errudunei ezarritako zigorrak ere.

LA SEXUALIDAD NO CONSENTIDA: LEGISLACIÓN Y JUSTICIA EN GIPUZCOA (SIGLOS XVI-XVIII)

CONFERENCIA


Utilizando como fuente de información tanto la legislación histórica como la documentación conservada en diferentes archivos del Territorio, se analizará el concepto que de estos delitos se tenía en la época, así como los perfiles de víctimas y agresores y las penas dictaminadas para los culpables.


 EUSKARA

 Ibarra zelaia, 4

 Urriak 27, 11:00
27 de octubre, 11:00

 Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa
Archivo Histórico de protocolos de Guipuzcoa

 943 78 12 05
ahpg-gpah@gipuzkoa.eus

 Oharra: Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan, gai horren inguruan dauden dokumentuak erakutsiko dira.



OÑATI

10
LAR / SAB

OÑATIKO EMAKUME IKUSEZINAK

BISITA KOMENTATUA

Herriko emakumeak ikusezinak izan dira orain artean. Bisita honekin, herriko historian garrantzia izan duten emakumeak bistaritzen saiatuko gara bakoitzak bere esparruan izandako emaria edota jasandako diskriminazioak azalaraziz.

LAS MUJERES INVISIBLES DE OÑATI

VISITA COMENTADA


Las mujeres de Oñati han sido invisibles hasta ahora. Con esta visita intentaremos dar voz a las mujeres que han sido importantes para la historia local, mostrando su legado y las discriminaciones que han sufrido.

 EUSKARA + CASTELLANO

 Oñatiko Turismo Bulegoa
Oficina de Turismo de Oñati


 Azaroak 10, 12:00
10 de noviembre, 12:00

 Oñatiko Turismo Bulegoa
Oficina de turismo de Oñati

 943 78 34 53
turismo@mutriku.net

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa





ORDIZIA

30

IGA / DOM

EMAKUMEA ORDIZIAKO HISTORIAN: ETXEAREN ETA ORUBERAREN JABE ETA IGORLE

HITZALDIA


Ordiziako historian zehar emakume batzuk etxearen eta oinordetza familiarren jabe eta igorle zuzenak izan dira. Hitzaldi honetan emakume hauek gertutik ikusiko ditugu dokumentazio historikoari esker. XVI-XIX mendeetan jokatu zuten paper garrantzitsuen testigu bihurtuz.

LA MUJER EN LA HISTORIA DE ORDIZIA: DUEÑA Y TRANSMISORA DE LA CASA Y DEL LINAJE


CONFERENCIA


A lo largo de la historia de Ordizia, algunas mujeres han sido dueñas y transmisoras directas de la casa y del linaje. En esta conferencia conoceremos de cerca a estas mujeres, gracias a la documentación histórica, convirtiéndonos en testigos del importante papel que cumplieron entre los siglos XVI y XIX.

 EUSKARA + CASTELLANO

 Ordiziako turismo bulegoa, Delikatuz Zentroa
Oficina de turismo de Ordizia,
Centro Delikatuz

 Irailak 30, 11:30
30 de septiembre, 11:30

 Ordiziako turismo bulegoa / Nera Iraola eta
David Cano
Oficina de turismo de Ordizia / Nerea Iraola
y David Cano

 943 88 22 90
turismo@ordizia.eus

 Irekia
Abierta



Ordiziako Udala



ORDIZIA

12

OST / VIE

ORDIZIA 750 URTEURRENA. BISITA GIDATU ANTZEZTUA

BISITA KOMENTATUA


Ordiziak aurten bere sorreraren 750 urteurrena ospatzen ari da. Antolatu diren ekintzen artean Ordiziako turismo bulegoak eta Urrup Antzerki Taldeak Ordiziako Erdi Aroko kasko historikoaren bisita gidatu antzestu bat antolatu du. Bertan herriaren zenbait pertsonai, batez ere emakumeak ezagutzeko aukera izango dugu eta bere historiak entzunez hiribilduaren bilakaera ezagutuko dugu.

ORDIZIA, 750 ANIVERSARIO. VISITA GUIADA Y DRAMATIZADA


VISITA COMENTADA


Ordizia celebra este año el 750 aniversario de su fundación. Entre las actividades organizadas se encuentra la visita guiada y dramatizada al casco histórico medieval, a cargo de la Oficina de Turismo de Ordizia y de Urrup Antzerki Taldea. Durante la misma tendremos la oportunidad de conocer a diferentes personajes de la localidad, principalmente mujeres, y escuchando sus historias conoceremos la evolución de la villa a lo largo de la historia.

 EUSKARA + GAZTELANIA

 Ordiziako turismo buelgoa
Oficina de turismo de Ordizia

 Urriak 12, 11:30
12 de octubre, 11:30

 Ordiziako turismo bulegoa eta Urrup Antzerki Taldea
Oficina de turismo de Ordizia y Urrup Antzerki Taldea

 943 88 22 90
turismo@ordizia.eus

 Irekia
Abierta



Ordiziako Udala



ORMAIZTEGI

20
LAR / SAB

FEILLET AHIZPEN LEGATUA; ILUSTRATZAILEAK XIX. MENDEKO EUSKAL HERRIAN

BESTE BAT

Hèlène eta Blanche FEILLET ahizpen, XIX. mendeko Euskal Herrian izan zuten bizitzaren eta garatu zuten obraren aurkezpena. Bi emakume artista izan ziren. XIX. mendean erdialdean ilustrazio lanean aritu ziren, profesionalki, batez ere turismoko gidetan. Euskal geografian barrena ibili ziren, ondoren litografia gisa argitaratuko zituzten paisaiak marraztuz.

Haien ondorengoa eta, era berean, ilustratzailea dugun Amaia Hennebutteren partaidetza izango dugu.

EL LEGADO DE LAS HERMANAS FEILLET; ILUSTRADORAS EN LA EUSKAL HERRIA DEL S. XIX

OTRA

Presentación de Hèlène y Blanche FEILLET, su vida y obra en la Euskal Herria del siglo XIX. Dos mujeres artistas que se dedicaron profesionalmente a la ilustración, principalmente de guías turísticas a mediados de siglo. Recorrieron la geografía vasca dibujando los paisajes que luego publicarían en forma de litografía.

Contaremos con la participación de su descendiente Amaia Hennebutte, también ilustradora.

🔊 EUSKARA

📍 Zumalakarregi Museoa
Museo Zumalakarregi

📅 Urriak 20, 11:30
20 de octubre, 11:30

👤 Zumalakarregi Museoa
Museo Zumalakarregi

📞 943 88 99 00
mzumalakarregi@gipuzkoa.eus

🗺️ Toki mugatuak
Plazas limitadas





ORMAIZTEGI

27

LAR / SAB

EMAKUMEEN PRESENTZIA ORMAIZTEGIKO OSTATUETAN XIX-XX. MENDEETAN

BISITA KOMENTATUA

Ormaiztegi herrian, 1854. urtean, trenbidearen garapenari esker eta iturburuen presentzia aprobetxatuz, bainuetxea ireki zen, eta harekin batera, beste zenbait ostalaritza establezimendu.

Gure jardueraren asmoa da ostatu eta establezimendu haietan emakumeek izan zuten presentzia eta rolak azalartzea. Bisita gidatu baten bitartez, XIX. mende bukaeran eta XX. mendean Ormaiztegin zeuden ostatuak eta dendak balioan jarri, eta emakumeek haietan izandako eginkizuna eta papera azalduko ditugu.

LA PRESENCIA DE LA MUJER EN LA HOSTELERÍA DE ORMAIZTEGI DURANTE LOS SIGLOS XIX Y XX

VISITA COMENTADA


En 1854, gracias al desarrollo del ferrocarril y aprovechando la presencia de diversos manantiales, se abrió el balneario de Ormaiztegi. Junto con él se abrieron, a su vez, varios establecimientos hosteleros. El objetivo de nuestra actividad es mostrar la presencia y los roles de la mujer en los citados establecimientos. Mediante una visita guiada pondremos en valor los establecimientos hosteleros y comerciales existentes en Ormaiztegi desde el final del siglo XIX y a lo largo del siglo XX, mostrando asimismo las funciones y roles desempeñados por la mujer en los mismos.

 EUSKARA

 Ormaiztegi Urbeltzen iturria
Fuente Urbelzen de Ormaiztegi

 Urriak 27, 11:30
27 de octubre, 11:30

 Ormaiztegi Udala eta Zumalakarregi Museoa
Ayuntamiento de Ormaiztegi y
Museo Zumalakarregi

 644 429 501 / 943 88 99 00
kultura.ormaitzegi@gmail.com /
mzumalakarregi@gjpuzkoa.eus

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa





ORMAIZTEGI

10
LAR / SAB

“BAINUETXEKO AHOTSAK”

BESTE BAT

Topaketa irekia eta bateratze lana, Ormaiztegiko bainuetxea izan zen bitartean horren bizitzari lotuta egon ziren pertsonen esperientzien inguruan. Bainuetxea 1853an inauguratu zuten, Gerra Zibilean zehar ospitale militarra izan zen, eta 1964an itxi zuten. Lan esperientziak azaltzen dituzten lekukotasunak dira, instalazioak erabili zituzten pertsonenak...


“Bainuetxeko ahotsak” honetan memorian ikertuko da, memoria horren transmisioak herriko ondare immaterialaren funtsezko alderditzat duen garrantzia azpimarratzearekin batera.

“VOCES DEL BALNEARIO”

OTRA

Encuentro abierto y puesta en común en torno a experiencias de personas que estuvieron vinculadas al Balneario de Ormaiztegi (inaugurado en 1853, convertido en hospital militar durante la Guerra Civil y cerrado en 1964) a lo largo de su existencia. Se trata de testimonios que narran su experiencia laboral, personas usuarias de las instalaciones...

“Voces del Balneario” indaga en la memoria y la importancia de su transmisión como parte fundamental del patrimonio inmaterial del municipio.

 EUSKERA + CASTELLANO

 Zumalakarregi Museoa
Museo Zumalakarregi

 Azaroak 10, 17:30
10 de noviembre, 17:30

 Ormaiztegiko Udala eta Zumalakarregi Museoa
Ayunt. Ormaiztegi y Museo Zumalakarregi

 943 88 99 00
mzumalakarregi@gjpuzkoa.eus

 Irekia
Libre





PASAI DONIBANE

06
LAR / SAB

SEHASKA KANTUEN TAILERRA

TAILERRA

A. Guridik eta A. Ansak haur txikiei eta haien gurasoei zuzendutako tailerra emango dute. Egitaraua sehaska kantek osatuko dute osotasunean. Zein helbururekin? Ba, etxeko goxotasunean haurrei kantatu izan zaizkien kantak gogoratzekoarekin, eta batez ere etxeko helduak, guraso eta aiton-amonak, berriro ohitura hori berreskuratzeko bidean jartzekoarekin. Izan ere, bozgorailu batetik ateratzen diren abestiek ez dute haurraren bera babesten duen helduak abesten duenean eskaintzen diona ematerik.

TALLER DE CANCIONES DE CUNA

TALLER


A. Guridi y A. Ansa impartirán un taller dirigido a padres/madres y a niñas/niños. El programa estará compuesto en su totalidad por canciones de cuna. ¿Cuál es el objetivo? Recordar las canciones cantadas a las y los niños al calor del hogar, e impulsar la recuperación de esa costumbre de cantar a las y los niños, principalmente entre las personas mayores, padres/madres y abuelos/abuelas. Una canción escuchada a través de un altavoz no proporciona a las y los niños el sentimiento que sí les provoca, sin embargo, cuando es la persona mayor que se encarga de su cuidado la que canta.

 EUSKARA

 Victor Hugo Etxea. Pasai Donibane
Casa Victor Hugo. Pasai Donibane

 Urriak 6, 17:00
6 de octubre, 17:00

 Soinuenea Fundazioa eta
Oarsoaldeako Turismo Bulegoa
Fundación Soinuenea y Oficina
de turismo Oarsoalde

 943 493 578
artxiboa@soinuenea.eus

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa

 SOINUENEA
Herri Musikaren Txokoa



PASAI SAN PEDRO

URR 20 | AZA 17
OCT | NOV
LAR-LAR / SAB-SAB

EUSKAL ITSAS HISTORIARI BEGIRADA BERRIA. EMAKUMEEN PAPERA XVI. MENDEKO INDUSTRIAN

BISITA KOMENTATUA

Euskal Herriko itsas historia bere osotasunean ulertzeko, Ternuan bale ehizan zebiltzan bitartean hemen egiten jarraitzen zen lanaz hitz egin nahi dugu. Lan eta ardura hau emakumeen esku zegoen eta ezer gutxi dakigu eta hitz egin da ofizio hauei buruz. Gure helburua da emakumeen lanak izan zuen garrantziaz jabetzea, balorean jartzea eta itsas historiari begirada bat zabaltzea osotasun batean kontatu ahal izateko. Hitzaldi hauen ostean, bisita mota hau erreserbatzeko aukera egongo da Albaolan.

NUEVA MIRADA A LA HISTORIA NAVAL VASCA. EL PAPEL DE LA MUJER EN EL SIGLO XVI

VISITA COMENTADA

Para poder entender en su totalidad la historia naval vasca, queremos hablar de los trabajos que se realizaban aquí mientras se desarrollaba la caza de la ballena en Terranova. Estos trabajos y responsabilidades, estaban muchas veces a cargo de las mujeres y poco se ha hablado hasta ahora sobre estos oficios. Nuestro objetivo es dar a conocer la importancia que tuvieron las labores de estas mujeres, ponerlas en valor y ampliar la mirada a la historia naval para poder contarla en su totalidad.

🗣️ EUSKERA + CASTELLANO

👤 Albaola Itsas Kultur Faktoria

📍 Albaola Itsas Kultur Faktoria

📞 943 39 24 26
sarea@albaola.com

📅 Urriak 20 eta azaroak 17, 11:00
20 de octubre y 17 de noviembre, 11:00

🗨️ Izen-ematea aurrez
Inscripción previa



ITSAS KULTUR FAKTORIA
LA FACTORIA MARÍTIMA VASCA

SEGURA

HARIZ HARI, SORGINDU ADI! EMAKUMEEN ONDAREA JASOTZEN DUEN IBILBIDE GIDATU BERRIA

BISITA KOMENTATUA


Segurako hiribildua egun dagoen tokian XIII. mendean eraiki zen. Multzo Monumental Historiko Artistikoa izendaturik dago, bere ezaugarriek Erdi Arora eramaten gaituzte. Herriari nortasuna bertako biztanleek ematen diote, horien artean, emakumeek. Denak omendu nahian, batzuen ondarea jasotzen duen ibilbidea sortu dugu. Turismo bulegoa eta Euskal Herrian bakarra den Erdi Aroko Interpretazio Zentroa kokatuak dauden XVI. mendeko Ardixarra etxean emango diogu hasera abentura honi.

DE MUJER A MUJER, ¡EMBRÚJATE! NUEVA VISITA GUIADA DEL PATRIMONIO DE LA MUJER

VISITA COMENTADA


La Villa de Segura fue construida en la ubicación actual en el s. XIII. Está declarada Conjunto Histórico Monumental y su morfología nos llevan a la Edad Media. Sus habitantes le dan a la villa su identidad, entre ellos, las mujeres. Con el propósito de homenajear a todas ellas, hemos creado un recorrido recogiendo el patrimonio de algunas de ellas. Comenzaremos esta aventura en la casa Ardixarra, donde están la oficina de turismo y el único Centro de Interpretación Medieval de Euskal Herria.

 EUSKERA + CASTELLANO

 Ardixarra Etxea. Turismo Bulegoa
Casa ardixarra

 Azaroak 11, 11:30
11 de noviembre, 11:30

 SEGURAKO UDALA

 943 80 17 49
turismoa@segura.eus

 Izen-ematea aurrez
Inscripción previa



SEGURAKO UDALAK



TOLOSA

26 | 27

OST-LAR / VIE-SAB

TXOTXONGILOEN ANTZEZPENA

IKUSKIZUNA

Aurtengo Ondarearen jardunaldia emakumeei lotua izanik Topic-ek emakumeen papera txotxongilolari gisa balioan jarriko duen antzezpene bat eskainiko du, honakoa emakumeek antzeztu edo zuzendutako lana izango delarik. Lan honen helburua emakumezko txotxongilolarien erreferenteak ematea izango da. Lana amaitzean txotxongilolariei galderak egin ahal izango zaizkie.

REPRESENTACIÓN DE MARIONETAS

ESPECTÁCULO


